



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Onespena: 2004/05/26

ALHAO, 135zk. 2004/11/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

## ZABORTEGI ZERBITZUAREN ARAUDIA

### ZIOEN ADIERAZPENA

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agintzen du udalei aitor dakizkiela, sektoreko legedian, kaleak garbitu nahiz hondakinak bildu eta tratatzeko eskumenak (25.2.1. art.), eta behartu egiten ditu udalak, bakarka nahiz elkarturik, udalerrri guztietan ere zabor bilketa eta kale garbiketa zerbitzuak eskaintzera, baita, 5.000 biztanletik gorako populazioa dutenetan, hondakinak tratatzera ere (26. art.); hain zuzen ere, funtsezko zerbitzutzat jotzen du hori, eta erakunde lokalen eta ez besteren esku uzten ditu hondakinak bildu, tratatu eta ustiatzeko zereginak (86.3. art.).

Egungo gizartearen ezaugarri den kontsumo-ahalmen handiak hiriguneetan sortzen diren hondakinak ugaltzea dakar berekin. Hori dela eta, behar-beharrezkoa da, Europako, estatuko nahiz autonomia erkidegoko legedia aintzat harturik, antolakuntza eta zaintza erregimen bat ezartzea hiriko zabor eta hondakinak bildu eta tratatzeari dagokionean, hartara ingurumena babesteko.

Horrenbestez, hondakinen tratamendua nahiz zabortegi-sistemaren bidezko suntsipena izaki, hain zuzen ere, araudi honen xedea, aipatu beharra dago 2002ko urtarrilaren 29an argitaratu zela BOEn 1.481/2001 Errege Dekretua, 2001eko abenduaren 27koa, zeinen bidez aldatu baitzen gurera hondakinen gaia jorratzen duen Europako 31/1999 Araudia. Hondakinak zabortegian utziz suntsitzeari dagokionean, erregulazio berria ezarri du delako arau horrek, baita zabortegien sailkapen berria egin ere, kategoria hauek bereizten dituelarik: hondakin arriskutsuentzako zabortegiak, arriskutsu ez diren hondakinentzakoak eta hondakin geldoentzakoak.

Zaharkitua geratu da, beraz, orain arteko bereizketa (hiriko hondakinak, industriakoak edo eraikuntzakoak), eta, hortaz, aurrerantzean Gardelegin suntsitzen diren hondakinak ezingo dira izan arriskutsu ez diren hondakinak edo hondakin geldoak baino.

Erregulazio horren argitan, hondakinak botatzeko bi eremu elkarrengandik bereiz dituen zabortegia izango da Gardelegikoa: bata arriskutsu ez diren hondakinentzat eta bestea hondakin geldoentzat. Hartara, zenbait azpiegitura komun baterako nahiz besterako baliatuko dira, hala nola sarbideak, pisatze lekuak eta abar.

Horrek guztiak, ezinbestean, Zabortegi Zerbitzua aldatu beharra dakar berekin, Europako arauetara egokitze aldera.

Arau horiek berekin dakarten berrikuntzaz gain, Zerbitzuaren Araudi honek badu beste alderdi nabarmenik ere; hain zuzen ere, kendu egin dira 1997ko abuztuaren 18ko Araudiko IV. eta V. kapituluak (Dokumentazioa eta Ustiapena Kontrolatzea). Izan ere, Zabortegi Zerbitzuak beharrezko duen erregulaziotik kendu egin nahi izan dira zerbitzuaren kudeaketari eta ustiapenari buruzko alderdiak. Hain zuzen ere, aldian-aldian zabortegia kudeatzeko kontratu berriak onesten direlarik, baldintza-orrietan jaso beharko dira halakoak, egungo kudeaketa ereduari eusten bazaio.

Hauxe dugu araudi honetan nabarmendu beharreko beste kontu bat: aldeztu aurretik tratatu egin beharko dira Gardelegiko zabortegian suntsitu nahi diren hondakinak, behar diren baldintza teknikoak bete ditzaten, zerbitzua hobeto kudeatze aldera, berorien arriskugarritasuna nahiz kopurua murrizten delarik. Gauzatze bidean dira, hain zuzen ere, horretarako behar diren azpiegiturak. Bistan da, aldeztu aurretiko tratamendu hori ez da aplikatuko tekniko ezinezko bada edo hondakinen kopurua nahiz arriskugarritasuna murrizten laguntzen ez badu.

Hondakinak onartzeko prozedura ezarri izana da araudi honen baitako beste berrikuntza garrantzitsu bat. Aipagarria da, zentzu horretan, hondakinen kontrolerako bi fase berri txertatu direla: alde batetik, hondakinen oinarriko ezaugarrien berri jasotzeko probak eta, bestetik, adostasun probak. Hartara, hondakinak hobeto ezagutzeko aukera emango duten kontrol bideak izango dira, zeinek haien tratamendu egokia eta zentzukoa bideratzen lagunduko baitute, eta horrek, dudarik gabe, zerbitzuaren kudeaketaren planifikazioa hobetuko du.

Horrela, bi zabortegi motetako batean hasierako onespena lortzekotan, hondakin mota zehatz bakoitzaren oinarriko ezaugarrien berri jaso beharko da, eta halakoak onartzeko eskatzen diren baldintzak bete. Instalazioan onartuak izateko, hondakin mota zehatz bakoitzari adostasun probak egin beharko zaizkio, eta instalazioko berariazko irizpideak -



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Onespena: 2004/05/26

ALHAO, 135zk. 2004/11/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

baimenean bertan ageri direnak- bete beharko dira. Azkenik, zabortegi sarrerara iristen den hondakin kargamentu bakoitza bertatik bertara aztertu beharko da.

## **I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua.- Xedea**

Hondakinak Gardelegiko udal zabortegian utziz suntsitzeko zerbitzuaren erregulazio juridikoa, teknikoa eta ekonomikoa da araudi honen xedea, hartara berorren kudeaketa eta ustiapen egokia bidera dadin, pertsonen osasuna eta ingurumena babestuz bidenabar. Onargari diren hondakinak hartu, bildu, maneatu eta botatzeaz arduratuko da zerbitzu hori, hondakinak zabortegian utziz suntsitzearen gaineko 1.481/2001 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, aintzat harturik.

### **2. artikulua.- Definizioak**

Araudi honi dagozkionetarako, hona zenbait hitzen esanahia:

Hondakinak: Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen eranskinean ageri diren kategorietakoren bateko edozein substantzia edo objektu, hura daukanak bota egiten duelarik, bota egin nahi duelarik nahiz botatzeko obligazioa duelarik. Edonola ere, halakotzat joko dira Europako erakundeek onetsitako Hondakinen Katalogo Europarrean (HKE) ageri direnak.

Hiri edo udal hondakinak: etxebizitza, merkataritza-areto, bulego eta zerbitzuetan sortzen direnak, eta, halaber, arriskutsutzat sailkatuta ez daudenak oro, baldin eta beren zer nolakoak eta osaera kontuan harturik haietan sortu daitezkeen parekotzat jo badaitezke.

Arriskutsu ez diren hondakinak: hondakin arriskutsuen definizioan -Hondakinei buruzko 10/1998 Legea, apirilaren 21ekoa, 3. artikuluko c) paragrafoa- sartzen ez diren hondakinak.

Hondakin geldoak: arriskutsu ez diren eta aldakuntza fisiko, kimiko edo biologiko nabarmenik gertatzen ez zaien hondakinak. Hondakin geldoak ez dira disolbagarri, ezta erregai ere, eta ez dute ez fisikoki, ez kimikoki erreakzionatzen, ezta beste inola ere; ez dira biodegradagarriak, eta ez diete modu kaltegarrian eragiten bestelako gaietara haiekin kontaktuan daudelarik, hots, ez dute ingurumena kutsatzen edo gizakion osasunerako kalterik sortzen. Hutsaren hurrengo izan behar dute hondakinen guztizko lixibiakortasunak, poluitzaile-edukiak eta lixibiazioaren ekotoxikotasunak, eta, bereziki, ez dute arriskurik sortu behar lur azaleko nahiz lur azpiko uren kalitateari dagokionean.

Hondakin biodegradagarriak: lurrera botaz gero, modu aerobiko nahiz anaerobikoan usteldu daitezkeen hondakin guztiak, hala nola janari-pizarrak, lorategiko hondarrak, papeira, kartoia eta abar.

Aldez aurreko tratamendua: hondakinen bolumena edo arriskugarritasuna murriztu, maneiatze lanak erraztu nahiz izan lezaketen balioa emate aldera haien ezaugarriak aldatzen dituzten prozesu fisiko, termiko, kimiko nahiz biologikoak, baita sailkatze lana ere.

Hondakinak dauzkana: hondakinak sortzen dituen edo horiek dauzkan pertsona fisiko edo juridikoa.

Lixibiatua: zabortegian utzitako hondakinetan barrena iragazten den eta hartatik jariatzen den edo hark bere baitan duen edozein likido.

Zabortegiko gasak: bertan botatako hondakinetatik sortzen diren gasak oro.

Eluatoa: lixibiazio-proba baten bidez laborategian lortutako disoluzioa.

### **3. artikulua.- Zabortegiaren sailkapena**

1.481/2001 Errege Dekretuan definitutako ondorengo zabortegi kategorietan sailkatua dago Gardelegiko zabortegia:

Arriskutsu ez diren hondakinentzako zabortegia

Hondakin geldoentzako zabortegia

Zabortegiak, beraz, bi eremu bereiz ditu, arriskutsu ez diren hondakinentzat bata, hondakin geldoentzat bestea.

### **4. artikulua.- Erabiltzaileak**

Hauek erabili ahal izango dute Gardelegiko zabortegia, berariazko baimena jaso ondoren: Araba lurralde historikoko udal, mankomunitate, partzuergo eta koadrilek. Hondakinak sortzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoek, Araba lurralde historikoan erroturik daudelarik. Trebiñuko konderriko udalek, Gasteizko Udalarekin hitzarmena sinatzen dutelarik.

## **5. artikulua.- Ustiapenaren kudeaketa**

Zuzenean nahiz zeharka kudeatuko du udalak zabortegiko zerbitzu publikoaren ustiapena.

## **6. artikulua.- Tasa**

Dagokion ordenantza fiskalaren bitartez urtero finkatzen den tasa ordainaraziko die udalak zabortegi zerbitzuaren erabiltzaileei.

Hondakinak zabortegian suntsitzearen truke kobratzen den prezioak honako hauek hartu beharko ditu bere baitan, gutxienez: zabortegia ezarri eta ustiatzeak berekin dakartzan kostuak, indarrean den legediak eskatzen dituen bermeetatik sortutako gastuak eta zabortegia itxi ondoren, gutxienez hogeita hamar urtez, instalazioa eta lekua bera onik zaintzeak ustez izango dituen kostuak.

## **7. artikulua.- Ordutegia**

Hauxe izango da zabortegiaren funtzionamendu-ordutegia erabiltzaileentzat:

Astelehenetik ostiralera:8:00etatik 19:30era

Larunbat eta igandeetan:8:00etatik 13:00etara

Udalak baimendutako salbuespenak salbuespen, ez da onartuko hondakin-deskargarik ezarritako ordutegitik kanpo.

## **II. KAPITULUA: HONDAKINAK ONARTU ETA HARTZEA**

### **Lehen Atala.- Hondakinak**

#### **8. artikulua.- Onar daitezkeen hondakinak**

8.1.Arabia lurralde historikoan sortzen diren ondorengo hondakinak sartuko dira Gardelegiko zabortegian onar daitezkeen hondakinen multzoan:

1.Arriskutsu ez diren hondakinak:

Hiri hondakinak eta Krispiñako araztegiko lohiak.

Arriskutsu ez diren edozein jatorritako hondakinak, baldin eta 1. eranskineko hondakin onargarrien zerrendan ageri badira eta arriskutsu ez diren hondakinak zabortegietan onartzeari dagokionez 2. eranskinean finkatutako irizpideak betetzen badituzte.

2. Hondakin geldoak, baldin eta 1. eranskineko hondakin onargarrien zerrendan ageri badira eta kategoria horretako hondakinak onartzeari dagokionez 2. eranskinean finkatutako irizpideak betetzen badituzte.

Gardelegiko zabortegian onar daitezkeen hondakinen zerrenda ageri da 1. eranskinean, Hondakinen Katalogo Europarraren (HKE) arabera kodifikazioa barne dela, Ingurumen Ministerioaren otsailaren 8ko 304/2002 Aginduaren ildotik.

Hondakinak kode jakin baten baitan sartzeak ez du esan nahiko zabortegian nahitaez onartu beharrekoak direnik, hondakinak onartzeko prozedura (10. art.) bete beharko baita horretarako, eta 2. eranskinean adierazten diren irizpideak -zabortegi-motaren arabera- aintzat hartzen direlarik ez baitute egon beharko onartu ezin diren hondakinen artean; halaber, zabortegira eramaten direnean dituzten ezaugarriak (hezetasuna, tenperatura eta abar) 9.2. artikuluan adierazten denera egokitu beharko dira.

Aurreko paragrafoan definitutako 1.b. motako arriskurik gabeko hondakinak hiri hondakinekin batera suntsitzeari dagokionez, beren ezaugarriak nahiz kopurua aintzat harturik bateragarri direnak bakarrik onartuko dira. Izan ere, funtsezkoa da zabortegira sartzen diren hondakinen arteko nolabaiteko orekari eustea, eta, horregatik, ez da onartuko, urtean, suntsitutako hiri hondakinen pisuaren % 15etik gora, kategoria bereko 1.b. motako arriskurik gabeko hondakinak. Nolanahi ere, urte jakin batean kopuru hori gainditzen ba-



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Onespena: 2004/05/26

ALHAO, 135zk. 2004/11/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

da, kontuan izango da hurrengo urtean kategoría horretatik suntsitu beharreko kopurutik deskontatzeko.

8.2. Aldez aurreko tratamendua izan duten hondakin geldoak nahiz arriskurik gabekoak bakarrik bota ahal izango dira Gardelegiko zabortegira. Hala ere, ez da tratamendu hori aplikatu beharrik izango teknikoki ezinezko bada edo hondakinen kopurua nahiz arrisku-garritasuna murrizten laguntzen ez bada.

8.3. Onargarri diren hondakinen baitan sartzen diren hondakin jakin batzuk botatzeko baimena ukatu nahiz bertan behera utzi ahal izango du udalak baldin eta interes publikoagatik, urtean botatuko kopuruagatik edo zabortegiaren ustiapen normala eta egokia galarazten duten arrazoiengatik halakorik gehiago ez onartzea edo ordezeko lekuetara bideratzea komeni bada. Udalak, ahal duen neurrian, hondakinak botatzeko ordezeko leku horien berri emango du.

Orobat utzi ahal izango du udalak bertan behera hondakinak botatzeko emandako baimena baldin eta, araudiaren aldakuntzaren baten ondorioz aurreko betebeharrak eta baldintzak aldatzen direlarik, betebeharrak tekniko berrietara egokitzerik ez badago.

Hondakinak botatzeko baimen bat baino gehiago uzten bazaio bertan behera zabortegiaren erabiltzaile berberari hiru urteko epean dossier zigortzaileak direla medio, eta edozein delarik ere hondakin mota, ukatu egingo zaizkio aurrerantzean hondakinak botatzeko egiten dituen eskariak.

## 9. artikulua.- Onartu ezin diren hondakinak

9.1. Indarrean dagoen legedian arriskutsutzat sailkatuta dauden hondakinak ezingo dira Gardelegiko zabortegiko instalazioetan onartu, ezta araudi honen 10. artikuluan adierazten diren probak egin ondoren onartezintzat jotzen direnak ere. Gainera, inolaz ere ezingo dira onartu beste hauek ere:

Kamioi hermetiko edo zisternetan garraiatutako hondakin likido nahiz likatsuak, oro har.

Hondakin erradioaktiboak.

Hondakin lehergarriak, higatzaileak, oxidatzaileak nahiz sukoiak.

Meatzaritza nahiz erauzketatik sortutako hondakinak.

Abeltzaintzatik sortutako hondakinak.

Ospitale eta kliniketako hondakin infekziosoak.

Botika-hondakinak eta botikak berak.

Autoak eta autoak zatikatze jardueratik sortutako hondakinak (zatikagailuen eta inguru dentsoen hondarrak) eta antzekoak.

Erabiltako pneumatikoak (bizikletenak salbu).

Gizakien kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuen hondakinak.

9.2. Ez dira onartuko, ezta aldez aurretik baimena eskuratu bada ere, honako hondar-material hauek:

Sutan edo gori daudenak.

50 °C-tik gorako tenperatura dutenak.

% 65etik gorako hezetasuna dutenak.

Zabortegian dauden baliabideak baliatuz trinkotu ezin diren blokeetan ekartzen direnak.

Zabortegiaren funtzionamendu egokia nahiz langileen segurtasuna perilean jar lezakeen begi bistako arrisku bereziren bat dutenak.

Hondakinak, onartzerik izan dadin, egokitu beharrik badago, haien titularraren kontura joango da hori.

Ez da inolaz ere onartuko hondakinak zabortegian onartuak izateko irizpideak betetze aldera horiek diluitu edo nahastea, ez bertan bota aurretik, ezta botatzerakoan ere.

Bigarren Atala.- Hondakinak onartzeko prozedura

## 10. artikulua.- Hondakinak onartzeko prozedura

Hondakinak Gardelegiko zabortegian utzi ahal izateko, Udalak hondakina onartzen duela jasotzen duen agiria beharko da.

Hondakinak Gardelegiko zabortegian onartzea, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak xedatutako prozeduraren arabera gauzatuko da; hondakinak zabortegira eramanda eta bete-



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Onespena: 2004/05/26

ALHAO, 135zk. 2004/11/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

garriak gauzatzearen inguruko araudia onetsi zuen dekretu horrek. Prozedura horren fa-seak dira: oinarrizko ezaugarrien berri jasotzea, adostasun frogak eta tokian bertan egiaztatzea.

Hala ere, hondakinak botatzeko baimena eskatu aurretik kontsulta egin ahal izango da, hondakinen zer-nolakoak, urtean aurreikusten den kopurua, maiztasuna eta garraioaz arduratuko den enpresa adierazten direlarik.

#### 10.1.-Oinarrizko ezaugarrien berri jasotzea

10.1.1.Beharrezko den informazio guztia jaso beharko da hondakinen gainean (zein mo-tatakoak diren, jatorria, osaera, homogeneotasun maila, lixibiakortasuna eta bestelako ezaugarriak, behar izanez gero), baita luzarora modu seguruan suntsitzeari dagokionez zabortegetan duten portaeraren gainean ere. Orobat ebaluatuko dira hondakinak muga-balioekin alderatuz, eta adostasun probetarako aldagai nagusiak atzemango dira, eta, ahal delarik, haiek erraztuko, neurtu beharreko osagaiak murriztuz.

Horretarako, baimen eskaria aurkeztu beharko dute erabiltzaileek, eta Industriaren Kalita-te eta Segurtasunerako Azpiegituren Araudia onetsi zeneko abenduaren 28ko 2.200/1995 EDaren ildotik horretarako eskumena duen laborategi batek egindako lagin-hartze eta analisisen datuak eskaini bertan. Gainera, informazio hau erantsi beharko diote eskariari: Hondakinen iturria eta jatorria.

Hondakinen ekoizpen-prozesuari buruzko informazioa (lehengaien eta produktuen deskri-bapena eta ezaugarriak).

8.2. artikulua ildotik hondakinei eman zaien tratamenduaren deskribapena, edo trata-mendu hori beharrezkotzat ez jotzeko nahiz teknikoki ezinezkotzat jotzeko arrazioen azalpena.

Hondakinen osaera edo lixibiazio-portaera.

Kolorea, usaina, forma nahiz itxurari buruzko beste edozein alderdi.

Hondakinen zerrenda europarraren arabeko kodea.

9.1. artikuluan baztertutako hondakinak ez direlako froga.

Hondakinak zein motatako zabortegetan onar daitezkeen.

Behar izanez gero, zabortegetan hartu beharreko aparteko neurriak.

Hondakinak birziklatzeko nahiz balioa emateko aukeraren egiaztatpena.

Aurreko informazioaren aldakuntza lekarkeen beste edozein kontu.

10.1.2.Hondakinekin proba bat egin beharko da, adierazitako informazio hori eskuratze-ko. Hondakin motaren mende egongo dira jaso beharreko ezaugarriak, laborategian egin beharreko probak eta oinarrizko ezaugarrien berri jasotzearen eta adostasun proben arte-ko erlazioa. Ezaugarrien berri jasotzen delarik, zabortegeta bakoitzeko onartze irizpi-deekin zuzenean alderatu ahal izango den informazioa emango da, eta, gainera, hondaki-nak udal hondakinekin nahasian botatzeak ekar ditzakeen ondorioei buruzko informazioa ere eman ahal izango du horrek, besteak beste. Honako hauek bereiz daitezke:

a.1.- Prozesu berean modu erregularrean sortutako hondakinak

Prozesu berean modu erregularrean sortutako hondakin jakin eta homogeneotzat joko dira hondakinak baldin eta:

sortzen dituen instalazioa eta prozesua ongi ezagunak badira eta prozesuan sartzen diren materialak eta prozesua bera ongi zehaztuta badaude, sortzen dituenak beharrezko den informazio guztia ematen badie udal zerbitzu teknikoei, baita prozesuan izandako aldakuntzen berri ere (bereziki prozesuan sartzen diren mate-rialei dagokienean).

Prozesua, normalean, instalazio bakarrean gauzatuko da. Hala ere, hainbat instalaziotatik igaroak ere izan ahalko dira hondakinak baldin eta, ezagun diren mugen barruan, ezauga-rrari komuneko ibilbide bakartzat jo badaiteke. Halakoetan, oinarrizko ezaugarrien berri ematerakoan, gorago adierazitako funtsezko informazioaz gain, bereziki azaldu beharre-koak izango dira beste hauek ere:

berriazko hondakinen osaeren sorta,

ezaugarri dituzten propietateen sorta eta aldakortasuna,

behar izanez gero, hondakinen lixibiakortasuna, sortaka egindako lixibiazio proba baten, perkolazio entsegu baten nahiz pH-arekiko dependentziaren proba baten bidez zehaztua.

aldian behin proba egin beharko zaien aldagai nagusiak.

Hainbat instalaziotan egindako prozesu beretik sortzen badira hondakinak, ebaluazioa noraino heldu den jakinarazi beharko da. Beraz, nahiko neurketa egin beharko dira, hondakinek ezaugarri dituzten propietateen sorta eta aldakortasuna erakuts dezaten. Oinarritzko ezaugarrien berri jaso dela esan ahalko da orduan, eta adostasun probak baino ez dira egin beharko gerora, hondakinak sortzeko prozesuan aldakuntza nabarmenak gertatzen direnean salbu.

Instalazio berean burututako prozesu beretik sortutako hondakinei dagokienez, neurketen emaitzek hondakinen propietateen aldakuntza arinak baino ezingo dituzte agerian jarri, hots, muga egokien baloreekin alderatuz gero adierazgarri ez direnak. Oinarritzko ezaugarrien berri jaso dela esan ahalko da orduan, eta adostasun probak bakarrik egin beharko gerora, salbu eta hondakinak sortzen dituen prozesuan aldakuntza nabarmenak gertatzen direnean.

Modu nabarmenean alda litezke hondakinen propietateak halakoak multzokatu edo nahasteko instalazioetatik, transferentzi instalazioetatik nahiz bilketatik sortutako hondakin mistoen fluxuetatik ekarriak direnean. Kontuan izan beharko da hori oinarritzko ezaugarrien berri jasotzerakoan.

#### b.1.- Ekoizpen irregularreko hondakinak

Modu erregularrean eta prozesu berean, instalazio jakin batean, sortzen ez diren hondakinak dira, ezaugarri jakineko hondakin-fluxu baten parte ez direnak. Horrelako hondakinen sorta bakoitzaren ezaugarriak jaso beharko dira. Dagozkien funtsezko betekizunak aztertuko dira oinarritzko ezaugarrien berri jasotzean. Sorta bakoitzaren ezaugarrien berri jaso beharko denez, ez da inongo adostasun probarik egin beharrik izango.

10.1.3. Aurreko atalean azaldu den informazioa jasotzen duenetik kontatuta, gehienez ere hilabeteko epean ebatzi beharko du udalak baimen-eskaria. Baiezkoan, onartze kode bat esleituko da, eta baldintzak zehaztuko.

Eskatzaileak baimenaren kopia bat igorri beharko dio Ingurumen Organoari, eta berorren ale bat gorde beharko du udalak gutxienez ere 5 urtez. Otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan zehaztutako eredura egokituko da onartze agiria.

#### 10.2. Adostasun probak egitea

Oinarritzko ezaugarrien berri jaso ondoren -aurreko atalean azaldutako moduan- hondakinak 3. artikuluan adierazitako bi zabortegi motetako batean onar daitezkeela erabakitzen delarik, adostasun probak bakarrik egin beharko dira aurrerantzean halako gehiago onartzeko, horien ezaugarriak hasierakoekin bat datozen eta 3. eranskinean zehazten denaren arabera dagozkien onartze irizpideak nahiz baimenean bertan adierazitako berariazkoak betetzen dituzten erabakitze aldera, hain zuzen ere.

Erregulartasunez sortutako hondakin-fluxuak aldi behin aztertzeko egingo dira adostasun probak, gutxienez ere ondorengo maiztasunarekin:

Zabortegira 200 tona hondakin eramanez ondoren edo, urte osoan eramaten diren hondakinak hori baino gutxiago badira nahiz ezaugarri uniformeko eta jatorri bereko hondakinak badira, urtean behin, oinarritzko ezaugarrien berri jasotakoan zehaztutako parametro kritikoak (aldagai nagusiak) aztertu beharko dira. Parametro kritiko horiei dagokienez hondakinak mugen barruan daudela erakutsi beharko du azterketak.

Oinarritzko ezaugarrien berri jasotzeko baliatutako probetakoren bat edo horietakoren batzuk egingo dira adostasun proba gisa -gutxienez, lixibiazio proba bat sorta batekin, 3. eranskinean adierazten diren metodoei jarraiki-, eta erregistro batean gordeko dira proba horietan lortutako emaitzak.

Hondakinen ezaugarrien arabera, proba horiek maizago egitea ere eskatu ahal izango da, muga-balioak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen bada.

#### 10.3. Bertatik bertara aztertzea

Kargamentu jakin batean zabortegira iristen diren hondakinak adostasun probak egin zaizkien berberak direla eta garraiolariak aldean dakartzan agirietan azaltzen direnekin bat egiten dutela ziurtatzeko, egiaztatze metodo azkarrak aplikatuko zaizkie; hain zuzen ere, deskargatu aurretik eta ondoren ikuskatuko dira, bertatik bertara, eta, behar izanez gero, beste edozein metodo ere baliatuko da.

Bertatik bertara ikusi edo aztertutakoa ez badator bat baimenean ageri diren datuekin, analisi zehatzagoa egin beharko zaie hondakinei udal laborategietan. Hala egiaztatzen

bada, hau da, ez badatoz bat, erabiltzaileari itzuliko zaizkio hondakinak, eta hark hartu beharko ditu bere gain sortutako gastuak oro, baita analisisienak ere; horrek, gainera, ez du galaraziko behar diren zigorrak jartzea.

Hondakinak zabortegean utzi ondoren, laginak hartuko dira aldiaren behin, eta onartu zirenetik hilabete igaro arte gordeko, gutxienez.

Ezingo dira zabortegeira sartu zisterna-ibilgailuak, lohi-zurgatzaileak, irensele-bultzatzaileak eta ikuskatu ezin diren ibilgailuak oro.

#### 10.4. Kontrol eta segimendu agiria

Hondakinen kontrola eta segimendua agiri batean jasoko dira, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan finkatutako ereduari jarraiki.

Garraiolariak aldean eraman beharko du agiri hori, eta udalak hondakinak hartzen ditue-nean beteko da.

Agiri horren kopia bat igorriko dio udalak Ingurumen Organoari, eta berak gordeko beste ale bat, gutxienez 5 urtez gorde ere.

#### 10.5. Probatetik salbuestea

Oinarrizko ezaugarrien berri jasotzeko probak eta adostasun probak nahitaezkoak izango dira hondakin mota bakoitzeko. Hala ere, aldi batez nahiz betiko proba horiek egitetik salbuestia geratu ahal izango dira kasu haueetan:

Araudi honetako 3. eranskinean adierazten denaren arabera probak egin beharrik ez du-ten hondakinen zerrendan sartuta daudenean.

Oinarrizko ezaugarrien berri jasotzeko beharrezko den informazio guztia ezagutzen de-nean eta guztiz justifikatua dagoenean, aginte eskudunak nahi bezala. Halakoetan, ados-tasun proba egingo da, eta, hondakinen ezaugarrien berri badela egiaztatu beharko da, probak ematen duenez gain.

Hondakin-mota jakinen batekin probak egitea praktikoa ez denean, edo probak egiteko prozedura eta onartze irizpide egokirik ez dagoenean; nolana ere, agirien bidez egiaztatu beharko da zirkunstantzia hori, baita hondakinak zabortegean onartzeko modukoak direla uste izateko dauden arrazoiak azaldu ere.

Arriskutsu ez diren hondakinak, lau hilean 500 kilogramo baino gutxiago sortzen dituen erabiltzaile berberak sortuak badira, oinarrizko ezaugarrien berri jasotzeko probetatik nahiz adostasun probetatik salbuesti ahal izango dira, lehendik nahikoa informazioa izanez gero eta ikuskatze hutsarekin gai arriskutsurik gabeak direla egiaztatu badaiteke.

Hirugarren Atala.- Sarrera eta hondakinak uzteko baldintzak

### 11. artikulua.- Sarrera-kontrola

#### 11.1.- Sarrera

Gasteiztik Urizaharrarako L-222 errepideko 4,2 kilometroaren inguruan dagoen sarrera izango da ibilgailuak zabortegeira sartzeko leku bakarra. Ibilgailuak sartzeko nahiz ateratzeko erabiliko da.

#### 11.2.- Pisatze kontrola

Zabortegeira sartzen diren ibilgailu guztiek kontrol-erainkuntza dagoen lekutik egin beharko dute. Bertan, izan ere, pisatu egingo da karga, dela eskuzko bitartekoak, dela automatikoak baliatuz.

Hondakinak pisatzen bukatu ondoren, pisaldiaren berri jasotzen duen orriaren kopia bat emango diote interesatuari kontrolaz arduratzen diren langileek, eta bertan, ibilgailuaren kargaz gain, ondorengo datuak ageriko dira: ibilgailuaren matrikula, jabea, hondakinak sortu dituen enpresa, hondakin-mota eta zein egun eta ordutan pisatu diren.

Hori guztia gora-behera, onarpen agiriak nahiz kontrol eta jarraipen agiriak hornituta joan beharko dute zabortegeira hondakinak eramaten dituzten ibilgailuek. Egin beharrekoak egin ondoren, garraiolariaren jarraipen eta kontrolerako orria beteko da, behar izanez gero.

Hala itxaronaldietan nola sarrerako pisatze eta kontrol prozesuan estu-estuan bete beharko dira ustiapenez arduratzen diren langileek emandako jarraibideak.

### 12. artikulua.- Hondakinak uzteko baldintzak

Ez da inolako hondakinak onartuko baldin eta berariaz halakoak garraiatzeko egokitutako ibilgailuetan ekartzen ez badira; izan ere, Garbiketari eta Hondakin Bilketa eta Garraioari buruzko Ordenantzan ezarritakoaren arabera egin beharko da horien garraioa.

Hondakinak garraiatu eta deskargatzeko baldintza eskasengatik istripuren bat gertatuz gero, edo zabortegiko instalazioei, ingurumenari nahiz besteri kalterik eginez gero, garraiolaria izango da erantzule.

Hondakinak garraiatu eta deskargatzeko baldintza eskasengatik isuririk gertatuz gero zabortegiko sarbidean nahiz barruan, garraiolariak arduratu beharko dute halakoak jaso eta kentzeaz.

Isuritako hondakinak jaso eta kentzeko beharrezko dituzten bitarteko eta tresnak utzi ahal izango dizkie udalak gidariei, baita erabilitako bitarteko horien kostua haiei leporatu ere.

Garraiolariak uko egiten badio isuritako hondakinak jaso eta garbitzeari, udalak berak egingo du, baina haren kontura; gainera, zigorra jarri ahal izango zaio, 20. artikuluan adierazten denaren ildotik.

### **III. KAPITULUA: HONDAKINAK DESKARGATU ETA BOTATZEA**

#### **13. artikulua.- Zabortegira sartu eta bertan egotea**

Erabat debekatuta egongo zerbitzukoak ez diren pertsonak eta ibilgailuak, baimenik gabe, zabortegian sartzea.

Hondakinak botatzeko behar duten denbora baino ez dute eman beharko zabortegian ibilgailuek eta horietan doazenek.

Ezingo da zabortegian ibilgailurik, edukinontzirik edo antzekorik utzi, zerbitzuko gain, matxura gertatuz gero edo ezinbestekoetan baino.

Estu-estu bete beharko dira zabortegi-eremuetarako bideetan seinaleek adierazten dituzten abiadura-mugak.

#### **14. artikulua.- Hondakinen descarga**

Deskarga eremuetarako sarbide guztiek behar bezala prestatuta eta seinaleztatuta egongo beharko dute.

Hondakinak botatzeko, garraiolariak estu eta zorrotz bete beharko dituzte ustiapenaren arduradunak emandako jarraibideak.

Pertsona eta inguruneari ahalik eta kalterik txikiena egiteko moduan egin beharko dira deskarga lanak, bereziki hautsa harrotu eta zaratak egiteari dagokionean.

Unean-unean ustiatzen ari den eremuan deskargatu beharko dira hondakinak, eta, beti ere, zabortegiko bertako langileek emandako jarraibideen ildotik.

#### **15. artikulua.- Deskarga lekuak**

Eremu bereziak izango dira zabortegian, baimendutako hondakin mota desberdinak deskargatzeko. Ustiatze lanetarako ibilgailuak baino ezingo dira ibili eremu horietan, salbu eta deskargatu beharreko kamioiak.

Ibilgailu eta oinezkoek zabortegi barruan egin beharreko joan-etorriak antolatzeko seinaleztapen egokia jarri eta zainduta eduki beharko du udalak, barruko zirkulazio-bideetan, sarrera eta irteera lekuan nahiz deskarga eremuetan.

Orobat izango da zabortegian zain egon behar duten ibilgailuentzako leku bat -karga aztertu arte edo, ustiapen-beharrak direla-eta, deskargatu arte itxaron behar denerako- eta behin-behineko deskarga egiteko eremu bat.

Hondakin-motaren arabera, bi deskarga-leku bereiziko dira:

1. Arriskutsu ez diren hondakinentzako eremua, hiri hondakin solidoentzat eta arriskutsu ez diren bestelako hondakinentzat, hala nola, gai organiko edo biodegradagarri gutxiak hondakin ez-organikoentzat eta araztegi sortutako lohientzat (gai organiko biodegradagarri nahiz gai ez-organiko askokoak). Hondakin geldoak, berriz, zaborra estaltzeko beharrezko direnak baino ez dira botako bertara.

2. Hondakin geldoentzako eremua. Hondakinak botatzeko eremu horien kokalekuak onesten den Ustiapen Planera egokituko dira, betetze ordenari eta terraza, ezponda eta bermen neurriei dagokienean.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Onespena: 2004/05/26

ALHAO, 135zk. 2004/11/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

Debekatuta egongo da baimenik gabeko inor egotea deskarga eremuetan. Orobat, debekatuta egongo da zaborren artean bilatzen eta arakatzen ibiltzea zabortegi barruan, salbu eta zerbitzuko langileek horiek tratatzeko eta balioa emateko egiten dituzten lanak.

#### **16. artikulua.- Instalaziotik ateratzea**

Baldin eta ibilgailuek, zabortegitik ateratzerakoan, hondakinak badituzte gurpiletan itsatsita, ongi garbitu beharko dira bidera atera aurretik.

#### **17. artikulua.- Garbigunea**

Gardelegiko zabortegiko instalazioetan dagoen Garbigune zerbitzua araudi propioaren bidez arautuko da.

### **IV. KAPITULUA: BETEBEHARRAK ETA ZIGORRAK**

#### **18. artikulua.- Betebeharrak eta erantzukizunak**

Araudi honetan jasotako betebeharez gain, sortutako hondakinak Gardelegiko zabortegira garraiatzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak behartuta egongo dira udal zerbitzu teknikoei behar diren erraztasunak ematera, hondakinak garraiatu eta tratatzeari dagokionean aurreikusitakoak betetzen ari direla eta pertsonen osasuna nahiz ingurumena babesten dela ziurtatzeko komenigarritzat jotzen duten informazioa eskuratzeko, ikuskatze lanak egiteko, laginak hartzeko nahiz gainbegiratze zereginak betetzeko.

Araudian adierazten diren betebeharrak ez betetzearen ondorio diren erantzukizunak hondakinak sortu dituenari nahiz garraiatu dituenari leporatuko zaizkie, modu solidarioan.

#### **19. artikulua.- Arau-haustekak**

Araudi honek arautzen dituen gaiei dagokienean, beronen edukiaren kontrako ekintzak nahiz omisioak joko dira arau hauste administratibotzat.

Hauek izango dira arau-hauste oso larriak:

Araudi honetako 9.1. artikuluan adierazitako hondakinak -onartu ezin diren hondakinak- botatzea zabortegira.

Hiru urteko epean arau-hauste larri bat baino gehiago egitea.

Ondorengo ekintzak eta omisioak izango dira arau-hauste larriak:

9.2. artikuluan zehaztu diren egoeretakoren batean dauden hondakinak deskargatzea, alde zuzenetik baimena eskuratu bada ere.

Baimenduekin bat ez datozen hondakinak deskargatzea nahiz horretan saiatzeta.

Behar ez bezala botatako hondakinak bertatik kendu eta garbitzeari uko egitea.

Hondakinak diluitu edo nahastea.

Hondakinen zer-nolakoei, kopuruari nahiz jatorriari buruz udalak eskatutako informazioa emateko obligazioa ez betetzea edo datu faltsuak nahiz iruzurrezkoak ematea.

Ikuskatze, laginak hartze eta gainbegiratze zereginak modu aktibo nahiz pasiboan oztopatzea.

Urte batean arau-hauste arin bat baino gehiago egitea.

Ondorengo ekintzak eta omisioak izango dira arau-hauste arinak:

Beharrezko den baimena izan gabe zabortegira sartzea.

Zabortegiko arduradunaren esanak ez betetzea.

#### **20. artikulua.- Zigorrak**

Araudi hau dela-eta egiten diren arau-haustekak eskala honen arabera zigortuko dira:

Arau-hauste oso larriak: 1.501 eurotik 3.000era bitarteko isuna eta/edo hondakinak botatzeko baimena bertan behera uztea.

Arau-hauste larriak: 751 eurotik 1.500era bitarteko isuna.

Arau-hauste arinak: 300 eurotik 750era bitarteko isuna.

Arau-haustea nahita egin den, behin eta berriro egin den eta nolako kalteak ekarri dituen hartuko da aintzat zigorrak jartzerakoan.

Nolanahi ere, jartzen diren zigorrak jartzen direlarik ere, aurreko egoerara bihurtu beharko ditu gauzak araua hautsi duenak, baita jabari publikoko ondasunetan egindako kalteak ordaindu ere, udal zerbitzu teknikoek baloratu ondoren.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Onespena: 2004/05/26

ALHAO, 135zk. 2004/11/22

